

ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, LANPOSTU BAT EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN III. TALDEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN.

L 258

Laborategiko teknikari espezialista

KIMIKA FAKULTATEA

EGITEZKO AURREKARIAK

UPV/EHUKo Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen den lanpostua hutsik egongo dela aurreikusita dagoenez, Gerenteak lanpostu hori zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, eta UPV/EHUKo Errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko da, eta 2025eko otsailaren 19ko EHAAan argitaratu zen).

OINARRIAK

Lehena: Deialdiko lanpostua zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2017ko uztailaren 18ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 28ko bileran berretutakoa (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

Aipatutako Akordia ikus daiteke Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen web orrialdean / Barne Deialdiak / Lan Kontratupeko Langileak.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHUKo web orrian argitatatzen den hurrengo egunetik bost egun baliodunetan amaituko da.

Eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUKo [langileen ataritik](#). Atari honetara EHUKo Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonaleko web orrian sar daiteke. Eskaera egiteko "nire lanpostua" atalean Zerbitzuen betekizuna eskatu aukeratzuz.

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUKo bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUKo bulegoetan aurkeztu diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorriz UPV/EHUKo idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUKo; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Hirugarrena: Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratudun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara ateratzen den lanpostua aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena: Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2017ko uztailaren 18ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako muga barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena: Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2017ko uztailaren 18ko akordioan 5.4 puntuan esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzintasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei dagozkion merituenak.

Seigarrena.- Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzko akordioaren 4.2. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau argitaratzen den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2025eko urtarrilaren 30eko erabakia
(2025eko otsailaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

Javier Varona Guarás
UPV/EHuko GERENTEA

I. ERANSKINA

EGINKIZUNEN ESLEIPENA

Lanpostua: Laborategiko teknikari espezialista
Erref: L 258
Zenbatgarrena: 36
Lanaldia: Arautua
Taldea: III
Kategoria Profesionala: Kimikako teknikari espezialista
Espezialitatea: Kimika
Maila: 21
HE: 2. Derrigortasun data 2002/12/31
Langunea: KIMIKA FAKULTATEA
Campus: GIPUZKOA
BE:

Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

Eginkizunak esleitzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

– UPV/EHUko lan kontratudun langile finkoa izatea eta jarduneko zerbitzuan egotea edo nahitaezko eszedentzian, bere ardurapeko semealabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu izana (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan).

– Esleitu nahi diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berekoa izatea, lanpostua talde bitara irekita dagoenean izan ezik; kasu horretan bi taldeetako lan kontratudun langileek parte hartu ahal izango dute.

– Esleitu diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berean egon izana lan kontratudun langile finko gisa.

- Beste eginkizunen esleipen bat hartu ez izatea edo uko egin ez izatea 4.2 artikuluan azaltzen den bezala.

- Baldintza espezifikoak betetzen dela egiaztatzea, lanpostuak halakorik edukiko balu.

– 2. hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen lege (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).